

**2019KO ILBELTZAREN 1ETIK
ABUZTUAREN 15ERA BITARTE
BAZTANGO KIROL-KLUBEK OHIKO
KIROL-JARDUERAK GARATZEKO
DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO
DEIALDI PUBLIKOA ARAUTZEN
DUTEN OINARRIAK**

Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko abuztuaren 9an egin bilkuran, onetsi zituen Baztango kirol-klubek 2019ko ilbeltzaren 1eko eta abuztuaren 15eko bitartean ohiko kirol-jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdi publikoaren oinarri arautzaileak (ondoren heldu direnak).

1. artikulua. Xedea. Oinarri hauen helburua da Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzera zuzendutako diru-laguntzak norgehiagoka emateko araubidea jartzea.

2. artikulua. Helburua. Diru-laguntzak 2019. urteko ilbeltzaren 1etik abuztuaren 15era bitarte egiten diren kirol-jarduerak burutzean sortutako gastuen zati bat ordaintzeko erabiliko dira.

3. artikulua. Onuradunak. Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek hartzen ahal dituzte oinarri hauen xede diren diru-laguntzak.

4. artikulua. Betekizunak:

1. Eskatzaileek.

- Baztanen egoitza soziala duen kirol-kluba izatea.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan diru-laguntzak eskuratzeko paratutako debekuren batean ere ez egotea.
- Baztango Udalak aitzinetik emandako diru-laguntzen justifikazioak behar den moduan eta egunean izatea
- Zuzenbide publikoaren zerga-bete-beharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ere ordainduak izatea, eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.

2. Kirol jarduerak.

- Irabazi-asmorik gabeko kirol-jarduera izatea, eta, hortaz, diru-laguntzak ezin izanen dio inola ere diru-laguntza eskatu

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SOLICITUD DE SUBVENCIONES PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS DE CARÁCTER ORDINARIO POR LOS CLUBES DEPORTIVOS DE BAZTAN EN EL PERIODO COMPRENDIDO ENTRE EL 1 DE ENERO Y EL 15 DE AGOSTO DE 2019

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Baztan, en sesión celebrada el día 9 de agosto de 2019, aprobó las bases reguladoras de la convocatoria pública de subvenciones municipales para el desarrollo de actividades deportivas de carácter ordinario por los clubes deportivos de Baztan en el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 15 de agosto de 2019.

Artículo 1. Objeto. Estas Basen tienen por objeto regular, en régimen de concurrencia competitiva, la concesión de subvenciones a clubes deportivos con sede social en Baztan para que desarrollen actividades deportivas de carácter ordinario

Artículo 2. Finalidad. Las subvenciones se destinarán a sufragar parcialmente los gastos ocasionados por la realización de las acciones deportivas que se realicen entre el 1 de enero y el 15 de agosto del año 2019.

Artículo 3. Beneficiarios. Podrán acogerse a las subvenciones objeto de estas Bases los clubes deportivos con sede social en Baztan.

Artículo 4. Requisitos:

1. Solicitantes.

- Ser club deportivo con sede social en Baztan.
- No hallarse incurso en las prohibiciones para obtener subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Estar al corriente en la adecuada justificación de subvenciones concedidas con anterioridad por el Ayuntamiento de Baztan.
- Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias de derecho público y de la Seguridad Social, así como no tener deudas con el Ayuntamiento de Baztan.

2. Actividades deportivas:

- Ser actividades deportivas sin ánimo de lucro, en consecuencia, la subvención económica no puede, en ningún caso, generar beneficio para

| | |
|---|--|
| <p>duen kirol-klubari irabazirik ekarri.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diru-laguntzaren xede den jarduerak irekia izan behar du. Baztanen erroldaturiko lagun orok parte hartu ahal izanen du eta horretarako kirol-klub eskatzailearen kide izatea ez da ezinbertzekoa izanen. - Ez dira baztertzailak izanen arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bertzelako arrazoiengatik. - Herritar guztiek jardueraren informazio publikoa izanen dute. - Aurkeztu diren proiektuak gauzatzeko, jarraipena egiteko, justifikatuak eta baloratuak izateko modukoak izanen dira eta horretarako baliabideak edukiko dituzte. - Jarduerak finantza-bideragarritasuna izanen du. Kirol-klub onuraduna arduratuko da Baztango Udalaren diru-laguntzaren bitartez estali ez den gastua estaltzeaz, eta horretarako finantziazio publiko edota pribatuko bertze iturri batzuek baliatuko da. - Aurkeztutako proiektua ez da udal eskaintzarekin lehiatuko. Udal eskaintzarekin lehia egiten duten proiektutzat haren helburu antzekoak dituzten aktibitateak hartuko dira, jarduera eskaintzen den hizkuntza edozein dela ere. - Diru-laguntzaren xedea den jarduera kirol-klub eskatzaileak berak antolatua izanen da, edo kirol-klubak horretan parte-hartuko du. - Eskolako adinean dauden haurrendako antolatzen diren kirol-jarduerak Udalerriko ikastetxeetako ordutegiz kanpo burutuko dira eta Baztango populazio osoari zuzenduko zaizkie. - Diru-laguntza horren onuraduna, batez ere, Baztango udalerrria izanen da. - Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza beteko da. <p>5. artikulua. Aurrekontu-aplikazioa. Diru-laguntzak ordainduko dira Baztango Udaleko aurrekontu orokorretan Tokiko Kirolerako eta Gainerakoendako diru-laguntzak izeneko 1-3410-4890000 aurrekontu-aplikazioaren kargura, kreditua dagoen bitartean.</p> <p>6. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kirol-</p> | <p><i>la entidad solicitante de la subvención.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>La actividad para la que se solicite subvención debe ser convocada con carácter abierto, podrá participar en ella toda persona empadronada en Baztan y no será requisito para participar estar asociado o asociada al club deportivo solicitante de la ayuda.</i> - <i>No serán discriminatorias por razón de raza, sexo, religión, ideología o cualquier otro motivo.</i> - <i>Toda la ciudadanía tendrá información pública de la actividad.</i> - <i>Los proyectos presentados tendrán capacidad y medios para poder ser llevados a cabo, hacer su seguimiento, ser justificados y ser valorados.</i> - <i>La actividad tendrá viabilidad financiera. El club deportivo beneficiario será el responsable de cubrir los gastos no cubiertos por la subvención del Ayuntamiento de Baztan, y para ello se valdrá de otras fuentes de financiación públicas o privadas.</i> - <i>El proyecto presentado no entrará en competencia con la oferta municipal. Se entenderán como proyectos que entran en competencia con la oferta municipal todas aquellas actividades que tengan objetivos similares a ella, sea cual sea el idioma en la que sea la oferta.</i> - <i>La actividad para la que se solicita ayuda deberá estar organizada por el club deportivo solicitante de la ayuda o bien éste participará en ella.</i> - <i>Las actividades deportivas dirigidas a la población en edad escolar se desarrollarán fuera del horario lectivo de los centros educativos existentes en el municipio, y estarán dirigidas a la totalidad de la población de Baztan.</i> - <i>El municipio de Baztan sea, principalmente, el beneficiario de esa ayuda.</i> - <i>Cumplir la Ordenanza Municipal reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan.</i> <p>Artículo 5. Aplicación presupuestaria. <i>Las subvenciones se financiarán con cargo a la aplicación presupuestaria 1-3410-4890000 denominada Subvenciones de Deporte Local y Otros de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Baztan, mientras la misma tenga crédito.</i></p> <p>Artículo 6. Actividades deportivas</p> |
|---|--|

jarduerak. Diru-laguntzak kirol-klubek modu egonkor eta etengabean gauzaten dituzten kirol-jardueretarako emanen dira, betiere baztandar guztiendako zuzentzen badira.

Diruz lagundu daitezkeen kirol-jarduerak, izaeraren arabera, mota hauetakoak izanen dira:

1. Aisialdiko kirol-jarduerak. Aisialdiko kirol-jardueratzat joko dira mota guztietako kirol-jarduera irekiak kirol federazioetako txapelketa ofizialetan sartuak ez daudenak, baldin eta haien helburu nagusiak kirol-jardueraren zein kirolen bat sustatzea, horietako batean hastea edota aritzea badira.

2. Federazioetako txapelketa ofizialetan sartuak dauden kirol-jarduerak.

Diruz lagungarriak direnak:

1. **Kirol-jarduerak antolatzea, betiere Baztanen berean gauzaten badira eta mota hauetako jarduerak baldin badira:**

- a. Txapelketak.
- b. Txapelketak ez diren kirol-jarduerak.
- c. Oinarrizko kiroleko kirol-eskolak, maila honetakoak: kadeteak, haurrak, kimuak, benjaminak eta txikiagoak.
- d. Monitorea, entrenatzaileak prestatzeko jardunaldiak.

2. **Kirol-jardueretan parte hartzea.** Kirol-jarduerak diru-laguntza jaso ahal izateko, parte-hartze horrek diru-laguntza eskatu duen kirol-klubaren izenean izan beharko du; klubaren izenean jardueran parte hartzen dutenen % 70ak Baztangoa izan beharko du, gutxiengoan kirolean (1) izan ezik, kasu horietan porzentajea % 50era ekar daiteke; eta parte-hartzen duten kirol-jarduerak hauetakoren bat izan beharko du:

- a. Txapelketak:
- Federazioen txapelketa ofizialak.
 - Ofizialak ez diren txapelketak (kirol-federazioek antolatzen ez dituztenak). Atal honetan diruz lagungarriak diren mailak hauek dira: gazteak, kadeteak, haurrak, kimuak, benjaminak eta txikiagoak.
- b. Monitorea, entrenatzaileak prestatzeko jardunaldiak.

(1) Gutxiengoan kiroltzat hau hartzen da:

subvencionables. *Se facilitará ayuda para el conjunto de actividades deportivas dirigidas a la totalidad de la población de Baztan que el club deportivo desarrolla de manera estable y continua.*

Las actividades subvencionables, según su carácter, serán:

1. *Actividades de Deporte Recreativo. Se entiende por deporte de carácter recreativo todo tipo de actividades deportivas de carácter abierto que no estén contempladas en los campeonatos oficiales de las federaciones deportivas, y que tengan como fines primordiales, la promoción, la iniciación y/o la práctica de alguna actividad deportiva o modalidad deportiva.*

2. *Actividades deportivas contempladas en los campeonatos oficiales de las federaciones.*

Las subvenciones se concederán por:

1. *Organizar actividades deportivas que se desarrollen físicamente en Baztan y se integren en alguno de los siguientes apartados:*

- a. *Competiciones.*
- b. *Actividades deportivas de carácter no competitivo.*
- c. *Escuelas deportivas de deporte base de categorías cadete, infantil, alevín, benjamín y/o menores.*
- d. *Jornadas de formación de entrenadores/as, monitores/as.*

2. **Participar en actividades deportivas.** *Para que la actividad sea subvencionable esta participación deberá ser en representación del club deportivo solicitante de la ayuda; el 70 % de los/as representantes del club en la actividad tendrá que ser de Baztan, excepto en el caso de deportes minoritarios (1) en cuyo caso ese porcentaje podrá reducirse hasta el 50 %; y la participación deberá ser en alguna de las siguientes actividades deportivas:*

- a. *Competiciones:*
- *Campeonatos oficiales de federaciones.*
 - *Campeonatos no oficiales (no organizados por las federaciones). En este apartado son subvencionables las categorías juvenil, cadete, infantil, alevín, benjamín y menores.*

b. *Jornadas de formación de entrenadores/as, monitores/as.*

(1) *Se consideran deportes minoritarios las modalidades deportivas que cuentan con*

Nafarroako Foru Komunitatean kirol-federazioa duen kirol-modalidadea, Nafarroako kirol-federatu osoaren lizentzien % 1,5 baino federatu-lizentzi gehiago ez duena.

7. artikulua. Eskaerak. Eskaerak eta agiriak aurkezteko modua eta epea.

– **Epea.** Eskaerak egiteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 30 egun naturalen barnean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskabideak ezarritako epez kanpo aurkezteak onartuak ez izatea ekarriko du.

– **Non.** Diru-laguntzaren eskaerak eta agiriak Baztango Udaletxeko Erregistroan aurkeztuko dira.

– **Agiriak.**

a. Eskaera-orria. Eskaerak egiteko eskaera-orri ereduak erabiliko dira. Eskaerak egiteko informazioa eta eskaera-orri ereduak Baztango Udalaren web orrialdean (www.baztan.eus), eta Baztango Udaleko kirol-bulegoan eskuratu ahal izanen dira. Eskaera-orri bat beteko da diru-laguntza eskatzen den kirol-jarduera bakoitzeko (modalidade, txapelketa, maila eta taldeko).

b. Kirolarien datuak:

- Kirolari parte-hartzaileen edota kirolari federatuen lizentzien zerrenda kategorien arabera, datu hauek dituela: izen-abizenak, sorteguna eta eroldako helbidea.
- Lizentzia indarrean duten entrenatzaileen zerrenda, haien maila zehazturik.

c. Jarduerari buruz informazioa:

- Dokumentazio grafikoa edo/eta ikus-entzunezkoa: prentsa, kartelak, publizitatea.
- Txapelketari edo/eta kirol-jarduerari buruzko datu hauek: egutegia, partidetak aktak, lizentziak eskuratzeko betetako inprimakia, emaitzak.

d. Kirol-jardueraren memoria zehatza.

e. Kirol-jardueraren gastuen justifikazioa.

Gastuak justifikatuko dira kirol-klubaren izenean dauden jatorrizko fakturen bidez; hauek, behin egiaztatu eta zigilatu ondoren, diru-laguntzaren eskatzaileari bueltatuko zaizkio. Faktura horietan bilduko dira

federación deportiva en la Comunidad Foral de Navarra y cuyo número de licencias federadas respecto al total de licencias del conjunto del deporte federado en Navarra no supera el 1,5 %.

Artículo 7. Solicitudes. Forma y plazo de presentación de solicitudes y documentación.

– **Plazo.** El plazo de presentación de solicitudes de subvención será de 30 días naturales, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra. El plazo de presentación de solicitudes será improrrogable. La presentación de solicitudes fuera del plazo señalado dará lugar a la inadmisión de las mismas.

– **Lugar.** Las solicitudes de subvención y documentación se presentarán en el Registro del Ayuntamiento de Baztan.

– **Documentación.**

a. Impreso de solicitud. Las solicitudes se presentarán utilizando los impresos normalizados existentes al efecto. La información y los modelos de solicitud estarán disponibles en la web del Ayuntamiento de Baztan (www.baztan.eus) y en la Oficina Municipal de Deporte. Se deberá cumplimentar un impreso por cada actividad; (modalidad, competición, categoría y equipo) por la que se solicita ayuda.

b. Datos de los/as deportistas:

- Listado de participantes y/o licencias de los/as deportistas federados/as según categoría indicando nombres y apellidos, fecha de nacimiento y dirección de empadronamiento.
- Listado de los entrenadores/as con licencia vigente indicando su categoría.

c. Datos propios de la actividad:

- Documentación gráfica y/o audiovisual: prensa, cartelería, publicidad.
- Datos referentes al campeonato o a la actividad deportiva: calendario, actas de los partidos, impreso de tramitación de licencias cumplimentado, resultados.

d. Memoria detallada de la actividad deportiva.

e. Justificación de gastos de la actividad deportiva.

Los gastos se justificarán por medio de facturas originales emitidas al club deportivo que, una vez comprobadas y selladas, serán devueltas al solicitante de ayuda. Las facturas deberán contener todos los datos exigidos por la

legeek eskatzen dituzten datu guztiak eta baita jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere.

Hartu-agiriak onartuko dira bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zuritzeko bakarrik, eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan; hala balitz, faktura egin eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu behar ditu: diru-jasotzailearen izen-abizenak, IFZ eta helbidea; dirua ordaintzen duen kirol-klubaren izena, IFK eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; guztizko prezioa, eta tokia, data eta diru-jasotzailearen sinadura

Joan-etorriak norberaren autoan egiten badira, gastuak justifikatzeko agirietan agertu behar du nork eraman duen autoa, joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den eta data. Joan-etorria garrario enpresa baten bidez eginez gero, garraio enpresako faktura aurkeztu beharko da eta, bertan, legeek eskatzen dituzten datu guztiak agertuko dira, bai eta jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere (joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den, data). Kontuan hartuko da joan-etorrien abiapuntutako kirol-klubaren egoitza sozialaren helbidea hartuko dela.

f. Kirol-klubak izandako diru-sarreraren eta gastuen balantze orokorra.

g. Kirol-klubeko estatutuak, lehenago ez baldin badira aurkeztu.

h. Zuzenbide publikoko zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela eta Baztango Udalarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duten agiri eguneratuak.

i. Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena entitate eskatzailea ez dagoela diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan diru-laguntzak eskuratzeko paratutako debekuren batean ere.

j. Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko diru-laguntzak eskatzeko 2019ko deialdi publikoko 4. artikulua betetzen dutela.

k. Baztango Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzen jotzen

normativa legal, así como una descripción detallada de la actividad o servicio realizado.

Únicamente se admitirán recibís cuando las actividades no se puedan acreditar por otro medio y, en todo caso, la persona que firma el recibí no ha de tener la condición de empresario/a o profesional en cuyo caso estaría obligado a expedir y entregar la correspondiente factura. El recibí debe contemplar los siguientes datos: nombre y apellidos, NIF y domicilio de la persona que recibe el dinero; nombre, CIF y dirección del club que abona el importe; descripción detallada de la operación o servicio; su precio total y, lugar, fecha y firma de la persona receptora del dinero.

En caso de que los desplazamientos se realicen en coches particulares, en la documentación justificativa del desplazamiento deberá aparecer quien ha llevado el vehículo, origen y destino del desplazamiento, el objetivo del mismo y la fecha. En el caso de que el desplazamiento se realice por medio de una empresa de transporte se deberá presentar la factura justificante del mismo, debiendo constar en la misma los datos que la normativa legal exige así como la descripción detallada de la actividad o servicio realizado (origen-destino del desplazamiento, objeto del mismo, fecha). Se tendrá en cuenta que se tomará como origen del desplazamiento el de la dirección de la sede social del club deportivo

f. *Balance general de ingresos y gastos del club deportivo.*

g. *Estatutos del club deportivo. Sólo en caso de que no se hubieran presentado con anterioridad.*

h. *Certificados actualizados de hallarse al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias de derecho público y con la Seguridad Social, así como de no tener deudas con el Ayuntamiento de Baztan.*

i. *Declaración responsable de que la entidad solicitante no se halla incurso en las prohibiciones para obtener subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*

j. *Declaración responsable de que el solicitante cumple con el artículo 4. de la convocatoria pública de subvenciones del año 2019 para el desarrollo de actividades deportivas de carácter ordinario por los clubes deportivos de Baztan.*

k. *El Ayuntamiento de Baztan podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a los clubes beneficiarios cualquier otra documentación*

| | |
|--|--|
| <p>duen bertz e dozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izanen dio eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazioa egiteko.</p> <p>1. Baztango Udalak eskumena du kirol-klub onuradunaren finantza-egoera egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen guztia egiteko, barneko edo kanpoko auditoriak barne.</p> <p>8. artikulua. Gastu konputagarriak:</p> <p>a. Kirol-jardueran izen-ematea.</p> <p>b. Federazioko gastuak: lizentziak, arbitrajeak, epaileak, fidantzak, eta federazioko bertzelako gastuak.</p> <p>c. Txapelketetara joan-etorriak: joan-etorrien abiapuntutako kirol-klubaren egoitza sozialaren helbidea hartuko da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Garraio enpresari ordaindutakoa.- Joan-etorria norberaren kotxean egiten baldin bada, hauek dira kontuan hartu beharrekoak:<ul style="list-style-type: none">• Kotxearen eta parte-hartzaileen arteko onartutako erlazioa 1/5 izanen da. Kirol-jardunaldira zenbat jokalaria joan diren frogatzeko kirol-jardunaldi horren akta aurkeztuko da.• Kilometro-ordaina honela balioztatuko da 0,25 €/km. <p>d. Kirolarien ostatua eta mantenua lehiaketetarako joan-etorrietan. Gastu hauek joan-etorria 400 km baino gehiago bada onartuko dira.</p> <p>e. Kirolarien kirol-material suntsikorra.</p> <p>f. Jokalarien kirol-ekipamendua.</p> <p>g. Monitoreendako eta entrenatzaileendako ordainsariak. Hartu-agiriekin justifikatutako ordainsarien kasuan, diruz lagun daitekeen kopuru gehiena kirol-klub bakoitzari 1 500 € monitoreko-entrenatzaileko izanen da, edozein mailetan edo taldetan lan egiten badute ere monitore-entrenatzaile horiek.</p> <p>h. Monitoren, entrenatzaileen prestakuntza.</p> <p>i. Udalarenak ez diren kirol instalazioak alokatzea, argia eta mantentze-lanetako gastuak. Baldin eta ez badago Baztanen Udalaren kirol-instalazio egokirik kirol-jarduera mota zehatz hori garatzeko.</p> | <p><i>complementaria que considera oportuna a los efectos de aclarar la documentación presentada.</i></p> <p><i>1. El Ayuntamiento de Baztan se reserva la potestad de someter a la entidad beneficiaria a cuantas actuaciones de comprobación financiera considere necesarias, incluida la realización de auditorias internas o externas</i></p> <p>Artículo 8. Gastos computables:</p> <p>a. Inscripción en la actividad.</p> <p>b. Gastos federativos: licencias, arbitrajes, jueces/juezas, fianzas y otros gastos federativos.</p> <p>c. Gastos derivados de desplazamientos a competiciones. Se tomará como origen del desplazamiento el de la dirección de la sede social del club deportivo.</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Importe abonado a la empresa de transporte.</i>- <i>En caso de desplazarse en coches particulares se tendrá en cuenta lo siguiente:</i><ul style="list-style-type: none">• <i>La relación coche/número de participantes admisible será 1/5. Como documento acreditativo de las personas jugadoras desplazadas en cada jornada deberá presentarse el acta de la correspondiente jornada deportiva.</i>• <i>Valoración del precio del kilómetro. El precio del kilómetro se valorará en 0,25 €/km.</i> <p>d. Gastos de alojamiento y manutención en desplazamientos a competiciones. Estos gastos serán admitidos, únicamente, si el desplazamiento de ida y vuelta es mayor a 400 km</p> <p>e. Material deportivo fungible.</p> <p>f. Equipamiento deportivo de los/las jugadores/as</p> <p>g. Remuneraciones dinerarias a monitores/as /entrenadores/as. En el caso de las remuneraciones justificadas por medio de recibís, la cantidad máxima como subvencionable será de 1 500 € por cada entrenador/a-monitor/a del club deportivo, independientemente de las categorías o equipos en los que intervenga esos monitores/as-entrenadores/as.</p> <p>h. Formación de monitores/as, entrenadores/as.</p> <p>i. Alquiler, luz y gastos de mantenimiento de instalaciones deportivas no municipales. Estos gastos únicamente serán admitidos en caso de no existir en Baztan instalaciones deportivas municipales adecuadas para el desarrollo de esa modalidad deportiva concreta.</p> |
|--|--|

| | |
|--|---|
| <p>j. Jardueraren antolaketa-gastuak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bulegokoak: idazpaperak, informatikako material suntsikorra, telefonoa, posta, webgunearen sortzea eta mantentzea.- Kartelak.- Anbulantzia, medikua.- Garaikurrak, sariak, dorsalak.- Parte-hartzaileen anoa-hornidura. Anoa-horniduratako kirol-jarduerako parte-hartzaileek edaten eta jaten dutena hartzen da, egoera fisikoari eutsi eta kirol-proba egiten segitzeko beharrezkoa duten jan-edaria. <p>k. Mediku-gastuak: azterketa medikoak, mutualitateak, farmaziako produktuak, produktu fisio-medikuak.</p> <p>l. Aseguruak: erantzukizun zibila, istripuak, medikuak.</p> <p>9. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa. Diru-laguntza izanen da, gehienez, onartu eta justifikatutako gastuen % 70.</p> <p>Egindako eskaerek, diru-laguntzaren lerroan aurreikusitako kreditua gainditzen badute, honelaxe erregularizatuko da:</p> <p>Kalkulatuko da behin-behineko esleipenak zenbateko porzentajea gainditzen duen diru-laguntzaren lerroan dagoen zenbateko erabilgarri osoa eta emaitza hori koefiziente zuzentzailea izanen da; ondotik, behin-behineko esleipenari aplikatuko zaio. Hau da, behin-behineko esleipena 54.000 euro (% 100) balitz, eta lerrorako 47.340 euro (% 87,67) bagenitu, koefiziente murriztatzaila % 12,33 izanen litzateke. Beraz, behin-behineko 3.000 euro esleituko balira, behin betiko emaitza, koefiziente zuzentzailea aplikatuta 2.630,10 euro izanen litzateke.</p> <p>10. artikulua. Antolamendua eta instrukzioa. Baztango Udaleko Kirol Arloa izanen da oinarri hauetan bildutako diru-laguntzak emateko prozeduraren antolaketa eta instrukzioarako organo eskuduna.</p> <p>11. artikulua. Balorazioa. Eskaerak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu, eta batzorde horretako burua Udaleko Kirol Arloko arduraduna izanen da.</p> <p>Balorazio Batzordea kide hauek osatuko dute:</p> | <p>j. Gastos de organización de la actividad:</p> <ul style="list-style-type: none">-Administrativos: papelería, consumibles informáticos, teléfono, correos, creación y mantenimiento de página web.-Cartelería.-Ambulancia, médico/a.-Trofeos, premios, dorsales.-Gastos de avituallamiento de participantes. Se entiende por avituallamiento los comestibles y bebidas consumidos por los/las participantes durante la prueba deportiva y que es necesario su consumo para preservar su estado físico y continuar disputando la prueba deportiva. <p>k. Gastos médicos: reconocimientos médicos, mutuas, material de farmacia, material fisio-médico.</p> <p>l. Seguros: responsabilidad civil, accidentes, médico/a.</p> <p>Artículo 9. Cuantía de las subvenciones. <i>La cantidad concedida no podrá ser superior al 70 % de los gastos justificados admitidos.</i></p> <p><i>En caso de que las solicitudes superasen el crédito máximo disponible de la línea de subvención se regularizará de la siguiente manera:</i></p> <p><i>Se calculará el porcentaje en el que sobrepasa la asignación provisional del total de subvenciones solicitadas al importe disponible total de la línea, siendo el resultado un coeficiente corrector que se aplicará sobre la asignación provisional. Es decir, si el importe asignado de manera provisional fueran 54.000 € (100 %) y el disponible de la línea fueran 47.340 € (87,67 %), el coeficiente reductor sería 12,33 %. Por tanto, si se hubieran asignado provisionalmente 3.000 €, el resultado definitivo derivado de la aplicación del coeficiente sería de 2.630,10 €.</i></p> <p>Artículo 10. Ordenación e Instrucción. <i>El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de las ayudas económicas recogidas en las presentes bases específicas será el Área de Deporte del Ayuntamiento de Baztan.</i></p> <p>Artículo 11. Valoración. <i>Las solicitudes serán examinadas por la Comisión de Valoración presidida por la persona responsable del área de deporte del Ayuntamiento.</i></p> <p><i>La Comisión de Valoración está formada por el</i></p> |
|--|---|

alkateak, kirol arloko zinegotzi arduradunak eta kiroleko teknikariak.

Balorazio Batzordeak txostena egin eta bertan ebaluazioaren emaitza zehaztuko du.

12. artikulua. Balorazio irizpideak. Onartu eta justifikatutako gastu konputagarrietatik diruz lagunduko den ehunekoa:

1. Kirol-jardueraren antolakuntzaz arduratzea: % 20 arte.

a. Kirol-jarduerak antolatzea, Baztanen gauzatuko direnak, mota hauetako jarduerak baldin badira: % 20

- Txapelketak.
- Txapelketak ez diren kirol-jarduerak.
- Oinarrizko kiroleko kirol-eskolak, maila hauetakoak: kadeteak, haurrak, kimuak, benjaminak eta txikiagoak.
- Monitoreak, entrenatzaileak prestatzeko jardunaldiak.

b. Kirol-jardueretan parte-hartzea.

Gehienez % 12. Kirol-jarduerak diru-laguntza jaso ahal izateko; parte-hartze horrek diru-laguntza eskatu duen kirol-klubaren izenean izan beharko du, haren izenean parte hartzen duten horien % 70 Baztangoa izan beharko du, gutxiengoan kiroletan izan ezik, kasu horietan porzentajea % 50era ekar daiteke eta ; eta kirol-jarduera hauetakoren batean parte hartuko da:

- Txapelketetan: Gehienez % 12
 - Federazioen txapelketa ofizialetan: % 12
 - Ofizialak ez diren txapelketetan (kirol-federazioek antolatzen ez dituztenetan). Atal honetan maila hauek dira diruz-lagungarriak: gazteak, kadeteak, haurrak, kimuak, benjaminak eta txikiagoak. % 5
- Monitoreak, entrenatzaileak prestatzeko jardunaldietan: % 5

2. Tokiko kirola sustatzea (pilota eta herri kirolak): % 11

3. Oinarrizko kirola sustatzea: % 11 arte

- Parte-hartzaileak kimuak eta gazteagoak dira: % 11
- Parte-hartzaileak haurrak eta gazteagoak dira: % 9
- Parte-hartzaileak kadeteak eta gazteagoak dira: % 7

4. Kirolean emakumezkoen parte-hartzea

Alcalde, el Concejal responsable del área de deportes y la Técnico de deportes.

La Comisión de Valoración emitirá un informe en el que se concrete el resultado de su evaluación

Artículo 12. Criterios de valoración. Porcentaje de los gastos computables justificados admitidos que será subvencionado:

1. Responsabilidad organizativa de la actividad deportiva: Hasta 20 %

a. Organización de actividades deportivas que se desarrollen físicamente en Baztan y se integren en alguno de los siguientes apartados: 20 %

- Competiciones.
- Actividades deportivas de carácter no competitivo.
- Escuelas deportivas de deporte base de categorías cadete, infantil, alevín, benjamín y/o menores
- Jornadas de formación de entrenadores/as, monitores/as.

b. Participación en actividades deportivas. Hasta 12 %.

Para que la actividad sea subvencionable esta participación deberá ser en representación del club deportivo solicitante de la ayuda; el 70 % de los/as representantes del club en la actividad tendrán que ser de Baztan, excepto en el caso de deportes minoritarios, en cuyo caso ese porcentaje podrá reducirse hasta el 50%; y la participación deberá ser en alguna de las siguientes actividades deportivas:

-En competiciones: Hasta 12 %

- Campeonatos oficiales de federaciones: 12 %
- Campeonatos no oficiales (no organizados por las federaciones). En este apartado son subvencionables las categorías juvenil, cadete, infantil, alevín, benjamín y menores: 5 %

-En jornadas de formación de entrenadores/as, monitores/as: 5 %

2. Promoción del deporte autóctono (pelota y herri kirolak): 11 %

3. Promoción del deporte de base: Hasta 11 %

- Los/as participantes son alevines y menores: 11 %
- Los/as participantes son infantiles y menores: 9 %
- Los/as participantes son cadetes y menores: 7 %

4. Promoción de la participación femenina en el

| | |
|---|---|
| <p>sustatzea: gehienez % 5.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumezkoak parte-hartzaileen % 20 eta % 40 artean: % 1 - Emakumezkoak parte-hartzaileen % 41 eta % 60 artean: % 3 - Emakumezkoak parte-hartzaileen % 61 eta % 80: % 4 - Emakumezkoak parte-hartzaileen % 80 baino gehiago: % 5 <p>5. Kirolean Baztango herritarren parte-hartzea sustatzea. Kirol-klubaren izenean parte hartzen dutenen % 80 baino gehiago Baztangoak: % 5</p> <p>6. Borondatezko lana sustatzea. Ez dago monitoreendako eta entrenadoreendako ordainsaririk: % 5</p> <p>7. Parte-hartzaile kopurua kirol jardueran. 30 parte-hartzaile baino gehiago: % 3</p> <p>8. Kirolean euskara sustatu eta zabaltzea. Euskararen erabilera sustatzeko asmo esplizitua duten kirol-jarduerak. Ez dira sartuko kirol arloko langileen prestakuntza-ikastaroak, ezta dibulgazio-materiala edo liburu eta aldizkariaren argitalpena ere: % 10 arte</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskara izatea kirol-jarduerako ahozko eta idatzizko hizkuntza bakarra: % 10. - Euskara izatea kirol-jarduerako ahozko hizkuntza bakarra: % 5. <p>13. artikulua. Ebazpena. Laguntzen eskaerei buruzko ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea da. Balorazio batzordearen proposamena aztertu ondoren emanen du organo eskudunak bidezko ebazpena, eta interesdunei jakinarazio die diru-laguntza eskatzeko epea akitzen den egunetik hiru hilabeteko epean, gehienez.</p> <p>Paratutako epean ebazpen espresik ematen ez bada, eskaerak ezetsizat hartuko dira. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa agertuko da, diru-laguntza onartu zaien eskatzaileen zerrenda bai eta ezetsitako eskabideen zerrenda ere.</p> <p>Ematen den diru-laguntza bertze administrazio publikoek, erakunde publiko edo pribatuek eta norbanakoek, naziokoek zein atzerrikoek, ematen dituzten bertzelako diru-laguntzekin bateragarria izanen da. Haien zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du</p> | <p>deporte: hasta 5 %.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Participación femenina entre el 20 % y el 40 %: 1 % - Participación femenina entre el 41 % y el 60 %: 3 % - Participación femenina entre el 61 % y el 80 %: 4 % - Participación femenina más del 80 %: 5% <p>5. Promoción de la participación en el deporte de los/as residentes en Baztan. Más del 80 % de los/as participantes en representación del club son de Baztan: 5 %</p> <p>6. Promoción del voluntariado. No hay retribución dineraria a monitores/as y entrenadores/as: 5 %.</p> <p>7. Número de participantes en la actividad deportiva. Más de 30 participantes: 3 %</p> <p>8. Fomento y difusión del euskera en el ámbito deportivo. Actividades deportivas con una intención explícita del fomento del uso del euskera. No se contemplan los cursos de formación del personal deportivo, ni el material divulgativo o de edición de libros o revistas: hasta 10%</p> <ul style="list-style-type: none"> - Utilización del euskera, tanto oral como escrito, como idioma exclusivo de la actividad: 10%. - Utilización del euskera como idioma oral exclusivo de la actividad: 5%. <p>Artículo 13. Resolución. La Resolución de las solicitudes de subvención se llevará a cabo por la Junta de Gobierno Local una vez estudiada la propuesta de la Comisión de Valoración. Esta Resolución se notificará a las partes interesadas en el plazo máximo de 3 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.</p> <p><i>Las solicitudes se entenderán desestimadas si no se notifica Resolución expresa en el plazo establecido. En la Resolución figurará el importe de la subvención, la relación de solicitantes a los que se concede la subvención, así como la relación de las solicitudes desestimadas.</i></p> <p><i>La subvención concedida será compatible con subvenciones de otras Administraciones Públicas, de otros entes públicos o privados, o de particulares, nacionales o internacionales. En todo caso, el importe de éstas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente,</i></p> |
|---|---|



| | |
|--|---|
| <p>behin ere gainditu egin beharreko jardueraren kostua.</p> <p>Deialdiaren Ebazpena Baztango Udalaren webgunean argitaratuko da.</p> <p>14. artikulua. Betebeharrak. Diru-laguntzaren hartzailleek dirua, nahitaez, diru-laguntzaren helburuetan erabili beharko dute eta hala egin dela dokumentuen bidez justifikatu.</p> <p>Diru-laguntzen hartzailleek diruz lagundutako jardura finantzatzeko eskatu edo lortutako bertze laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri eman beharko diote Baztango Udalari.</p> <p>Egiaztatu eta kontrolatzeko lanak bermatzeko, kontabilitate liburuak, erregistro diligentziatuak eta behar bezala auditatutako bertzelako agiria eduki beharko dituzte, indarrean diren legeetan xedatu bezala.</p> <p>Diru-laguntzen onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute; batez ere, Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza, eta, zekazki ordenantzaren “41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jardura eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek”, eta “42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla.”</p> <p>Kirol-klub onuradunek Baztango Udaleko ikur ofiziala erabili beharko dute diru-laguntzaren xede diren jardueren publizitatean eta zabalkundeetan.</p> <p>Kirol-klubek berek egingen dute langileen kontratazioa, eta Baztango Udalak ez du kontratazio horretan erantzukizun subsidiariorik izanen.</p> | <p><i>supere el coste de la actividad a desarrollar por el mismo.</i></p> <p><i>La Resolución de la convocatoria se hará pública en la página web del Ayuntamiento de Baztan.</i></p> <p>Artículo 14. Obligaciones. <i>Los beneficiarios de las subvenciones deberán destinarlas a los fines para los que se conceden y justificar documentalmente su aplicación.</i></p> <p><i>Los beneficiarios deberán comunicar al Ayuntamiento de Baztan la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.</i></p> <p><i>Con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las funciones de comprobación y control, deben disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación vigente</i></p> <p><i>Es preceptivo para los beneficiarios cumplir la normativa vigente. En especial, la Ordenanza Municipal reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan, concretamente el “artículo 41. Se dará prioridad al euskera en las actividades deportivas, culturales y demás, y en sus documentos, anuncios, carteles, fichas y demás publicaciones informativas que reciban ayuda económica del Ayuntamiento de Baztan”, y el “artículo 42. El Ayuntamiento de Baztan recomendará el uso del euskera a los/as solicitantes de permisos para la utilización de material e instalaciones municipales así como para la instalación de barracas en días festivos. Así mismo, informará a dichos solicitantes de que pueden disponer de la ayuda técnica del Servicio de Euskera en caso necesario”.</i></p> <p><i>Los clubes deportivos beneficiarios estarán obligados a utilizar en la publicidad y divulgación de las actividades objeto de subvención el símbolo oficial del Ayuntamiento de Baztan.</i></p> <p><i>Los clubes deportivos serán los que realicen la contratación laboral de personal, no existiendo responsabilidad subsidiaria en dicha contratación por parte del Ayuntamiento de Baztan.</i></p> |
|--|---|

15. artikulua. Diru-laguntza nola eta noiz pagatuko den. Emandako diru-laguntza transferentzia bidez pagatuko da, gehienez hiru hilabeteko epean Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen diru-laguntzak ebazten dituenetik kontaktzen hasita.

16. artikulua. Ez-betetzeak. Oinarri hauetan ezarritakoa ez betetzeak, gezurrezko datuak emateak edo Baztango Udalaren baimenik gabe diru-laguntzaren helburuak aldatzeak diru-laguntza galtzea eta jasotako dirua itzuli behar izatea ekarriko du. Orobat, ondotik egiten diren helburu bereko edo beretsuko diru-laguntza eskaerak bortz urtez ukatzea ere izan dezake ondorio, legeek agintzen dituzten bertze erantzukizunak ezertan galarazi gabe.

Halaber, onuradunak betebeharrak ia osorik bete dituenean eta zalantzarik gabe bere konpromisoak burutzeko jarrera frogatzen duenean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-printzipioari segituz zehaztuko da.

17. artikulua. Aplikatu beharreko legeria. Diru-laguntza hauek arautuko dituzte deialdiko oinarriek, dagokion urterako Baztango Udaleko aurrekontua betearazteko oinarriek, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko, uztailaren 2ko, 6/1990 Foru Legeak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraketa horiekin bat datorren gainerako legeriak.

Azken xedapena. Euskarazko eta espainolezko testuen artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, euskaraz idatzitakoa hartuko litzateke aintzat.

Artículo 15. Forma y plazo del abono de la subvención. La subvención concedida se abonará por transferencia en el plazo máximo de tres meses a contar desde que la Junta de Gobierno Local resuelva las subvenciones concedidas.

Artículo 16. Incumplimientos. El incumplimiento de lo establecido en estas Bases, el falseamiento de datos o la modificación sin autorización del Ayuntamiento de Baztan de los fines para los que se concedió la subvención, dará lugar a la pérdida de la misma, a la obligación de reintegrar las cantidades que hubieran sido percibidas, y podrá suponer la inadmisión de las posteriores solicitudes de subvención con idéntica o similar finalidad durante cinco años, sin perjuicio de las demás responsabilidades previstas en el ordenamiento jurídico.

Asimismo, cuando el cumplimiento por el club deportivo beneficiario se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar vendrá determinada por la aplicación del principio de proporcionalidad.

Artículo 17. Legislación aplicable. Estas subvenciones se rigen, además de por las presentes bases, por las Bases de Ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Baztan para el ejercicio correspondiente, por la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y por el resto de legislación concordante.

Última disposición. En caso de surgir un contencioso de interpretación entre los textos en euskera y español, será tomado en cuenta el escrito en euskera.